mikro

Hazten laguntzen digun Mikrofinantzaketa.

La Microfinanciación que nos hace crecer.

autonomoak

Mikrofinantzaketa mikroETEentzat / Microfinanciación para MicroPYMES

Bizkaia mikro

#BelieveInSmall

With the support of the European Investment Fund under the InvestEU Fund

Bizkaia

enplegua, gizarte kohesioa eta berdintasuna sustatzeko saila

departamento de empleo, cohesión social e igualdad

Zer da Bizkaia Mikro?

Bizkaia Mikro, Enpleguko, Gizarte Kohesioko eta Berdintasuneko Foru Sailari lotutako foru sozietatea da. Bere jarduera mikrofinantzaketa publikoan oinarritzen duen sozietatea.

Helburua

Gure helburua Bizkaiko mikroenpresei garatzen eta helburuak betetzen laguntzea da, finantzaketaren bidez, mikromailegu moduan, Bizkaian enplegu jasangarria eta kalitatezkoa sortzen laguntzeko. **Mikrofinantzaketa zirkularra deritzonaren bidez egiten dugu: Zure maileguaren itzulketa beste enpresa eta negozio batzuei euren helburuak lortzen laguntzeko erabiliko da.**

Elkarlaneko hazkunde erantzukidean sinesten dugulako.

¿Qué es Bizkaia Mikro?

Bizkaia Mikro es una sociedad foral vinculada al Departamento Foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad. Una sociedad que basa su actividad en la microfinanciación pública.

Propósito

Nuestro objetivo es ayudar a las personas autónomas y microempresas de Bizkaia y cumplir sus objetivos con el fin de contribuir a la creación de empleo sostenible y de calidad en Bizkaia. Lo hacemos mediante lo que denominamos **microfinanciación circular: la devolución de tu préstamo será utilizada para ayudar a otras empresas y negocios a conseguir sus objetivos.**

Porque creemos en un crecimiento colaborativo y corresponsable.

Eskakizunak eta Baldintzak
Requisitos y Condiciones

Hasta
15.000€ -raino zirkulatzailean
en circulante

50.000€ arte inbertsioetan
en inversiones

Interesa
Interés
2,5%
TAE 2,5288% UTB

Gastuak eta komisioak
0
Gastos y Comisiones

* *Enpresaren tamainaren, eragiketaren arriskuaren eta eskatutako finantzaketaren xedearen arabera.*
En función de la facturación anual, el riesgo de la operación y el destino de la financiación solicitada.

ONURADUNAK

Negozio eskatzailearekin gutxienez 3 urtez autonomoen erregimenean alta emanda dauden autonomoak.

BENEFICIARIAS

Personas autónomas con al menos 3 años de alta en régimen de autónomos con el negocio solicitante.

HELBURUA

Ibilgetuan eta I+G+Bn egindako inbertsioak ordaintzea, bai eta merkataritza-, ekoizpen- eta antolaketa-aktibazioarekin erlazionatutako gastuak ere. Finantzaketa zirkulatzailera bideratu daiteke, baina inoiz ez zorra birfinantzatzera edo pasiboa berregituratzera.

INBERTSIO-TRESNAK

- Mailegua.
- **Komisio eta notario-gastu barik.**
- **Hirugarrenen bermerik eta abalik gabe.**
- Gehienez 5 urteko **amortizazio-epea, urtebeteko gabealdiarekin.**
- **Hileko amortizazio**-kuotak**.**
- **Amortizazio aurreratua** egiteko aukera **kostu barik.**

DESTINO

Sufragar inversiones en inmovilizado y en I+D+i, así como gastos relacionados con la activación comercial, productiva y organizativa.

La financiación puede ir destinada a circulante pero nunca a refinanciar deuda ni a reestructurar pasivo.

INSTRUMENTOS DE INVERSIÓN

- Préstamo.
- **Sin comisiones ni gastos** notariales.
- **Sin garantías ni avales** de terceros.
- Plazo de **amortización máximo de 5 años con 1 año de carencia.**
- Cuotas de **amortización mensuales.**
- Posibilidad de **amortización anticipada sin coste.**

GU GARA SOMOS

JASANGARRITASUNA
INKLUSIOA
ERANTZUKIZUNA

SOSTENIBILIDAD
INCLUSIÓN
RESPONSABILIDAD

JIE irizpideak: Jasangarritasuna, Inklusioa eta Erantzukizuna

Bizkaia Mikrok gizarte- eta ingurumen-ekarpen positiboa egiten duten enpresen aldeko apustua egiten du. Horregatik, balorazio ekonomikoaz gain, programak Bizkairako balioa sortzeko beste elementu batzuk ere hartzen ditu kontuan:

ERAGIN SOZIALA

- Eragin sozial handiko sektoreetako autonomoak (osasuna, hezkuntza, zaintzak, etab.)
- Enpleguaren sorkuntza
- Enpleguaren kalitatea (soldata, kontziliazioa, onura sozialak, etab.)
- Kolektibo kalteberen inklusioa
- Berdintasunaren sustapena
- Lankidetza hirugarren sektore sozialarekin

INGURUMEN-ERAGINA

- Energia-trantsiziorako/deskarbonizaziorako funtsezko sektoreak
- Enpresa-jasangarritasuneko neurriak
- Energia-eraginkortasuna
- Birziklapena eta ekonomia zirkularra
- Hornitzaile jasangarrien homologazioa/hautaketa
- Erosketak tokiko hornitzaileei

JIE IZATEAREN ABANTAILAK:

- EZ JIE jarduera duten negozioek baino batez besteko finantzaketa handiagoa
- Lehentasunezko sarbidea enpresa-azelerazioko programetara, hala nola HEGAN programetara, eta BCorp Norte ekitaldietan parte hartzeko laguntza
- BFAk antolatutako enpresa-sustapeneko ekitaldiak

Criterios SIR: Sostenibilidad, Inclusión y Responsabilidad

Bizkaia Mikro apuesta por personas que generen una contribución social y ambiental positivas. Por ello, además de la valoración económica, se tienen en cuenta otros elementos de generación de valor para Bizkaia:

IMPACTO SOCIAL

- Personas autónomas en sectores de alto impacto social (salud, educación, cuidados, etc.)
- Creación de empleo
- Calidad del empleo (salario, conciliación, beneficios sociales, etc.)
- Inclusión de colectivos vulnerables
- Promoción de la Igualdad
- Colaboración con tercer sector social
- Otros

IMPACTO AMBIENTAL

- Sectores clave para la transición energética/ descarbonización
- Medidas de sostenibilidad empresarial
- Eficiencia energética
- Reciclaje y economía circular
- Homologación / selección de proveedores sostenibles
- Compras a proveedores locales.

VENTAJAS DE SER **SIR**:

- Mayor financiación media respecto a negocios con actividad NO SIR
- Acceso preferente a programas de aceleración empresarial como HEGAN y apoyo para la participación en eventos BCorp Norte
- Eventos de promoción empresarial organizados desde Diputación Foral de Bizkaia.

Betekizunak eta Baldintzak
Requisitos y Condiciones

- **Gutxienez 3 urteko jarduera duen eta Bizkaian erroldatuta dagoen pertsona autonomoa.**
- Eskabidea egiten duen autonomoak **egunean izan behar ditu ordainketak Bizkaiko Foru Ogasunarekin** eta **Gizarte Segurantzarekin**, eta egoera erregularizatuta izan behar du edozein Administrazio Publikorekin.
- Eskaera egiten duen autonomoa ezin da **berankortasun-zerrendetan agertu**, **ezta** sexuagatiko diskriminazioa egiteagatik **zigor administratibo edo penalik izan ere**.
- Mikrokreditua ez da **zorra birfinantzatzera** edo **pasiboak berregituratzera** bideratuko.
- Errentagarritasunaz eta arriskuaz gain, produktu honek bere **inpaktu positiboa** sustatzen duten **gizarte- eta ingurumen-balorazioko irizpideak** ditu. **Finantza-bazterkeriako** egoeran dauden negozioak lehenesten dira, bai eta **emakumeek, etorkinek edo desgaitasuna dutenek bultzatutakoak** edo **kolektibo horientzat enplegua sortzen dutenak** ere, horrela negozio berdinzaleagoak eta inklusiboagoak sustatuz. Modu berean, bereziki baloratzen dira **enplegu egonkorra eta kalitatezkoa** sustatzen duten ekimenak eta **ingurumen jasangarritasuneko** jardunbideak integratzen dituztenak, garapen jasangarriarekin lerrokatutako enpresa hazkunde arduratsua sustatuz.

- **Persona autónoma con, al menos, 3 años de actividad y empadronada en el territorio de Bizkaia.**
- La persona autónoma solicitante debe **estar al corriente de pagos** con la **Hacienda Foral de Bizkaia** y con la **Seguridad Social**, así como tener regularizada su situación con cualquier Administración Pública.
- La persona autónoma solicitante no puede figurar en **listados de morosidad**, **ni haber sido sancionada**, administrativa o penalmente, por incurrir en discriminación por razón de sexo.
- El microcrédito no estará dirigido a la **refinanciación de deuda** ni a una **reestructuración de pasivos**.
- Además de la rentabilidad y el riesgo, este producto incorpora **criterios de valoración social y ambiental** que potencian su **impacto positivo**. Se priorizan negocios que se encuentren en situación de **exclusión financiera**, así como aquellos que estén **impulsados por mujeres, personas inmigrantes o con discapacidad**, o que generen **empleo para estos colectivos**, promoviendo de esta forma negocios más igualitarios e inclusivos. Asimismo, se valoran especialmente las iniciativas que promuevan **empleo estable y de calidad** y aquellas que integran prácticas de **sostenibilidad ambiental**, fomentando un crecimiento empresarial responsable y alineado con el desarrollo sostenible.

** Ez dira finantzatuko pertsonei edo planetari kalte nabarmena eragin diezaieketen jarduerak, hala nola tabakoaren ekoizpena eta banaketa; alkohol destilatuen eta produktu deribatuen ekoizpena; jokoak, apustuak eta antzekoak; helduentzako entretenimendua; armen, pertsonen aurkako minen eta barreiatze-bonben fabrikazioa; erauzketa industriak eta erregai fosil ez-berriztagarrien ekoizpena, hala nola ikatzarena eta petrolioarena; klonazio eta aldaketa genetikoa; energia nuklearra; fracking-a, besteak beste.*

Halaber, kanpoan geratuko dira nazioarteko itunak, hala nola Nazio Batuen Itun Globala betetzen ez dituzten autonomoak, eta giza eskubideen, ustelkeriaren edo kontsumitzailearen segurtasunaren arloan jardunbide eztabaidagarriak dituztenak.

** No serán objeto de financiación aquellas actividades que puedan generar un daño manifiesto a las personas o al planeta, como son producción y distribución de tabaco; producción de alcoholes destilados y productos derivados; juegos, apuestas y similares; entretenimiento para adultos; fabricación de armas, minas antipersona y bombas de racimo; Industrias extractivas y producción de combustibles fósiles no renovables, como el carbón y el petróleo; clonación y modificación genética; energía nuclear; fracking, entre otros.*

Asimismo, serán excluidas aquellas personas autónomas que no cumplen con tratados internacionales como el Pacto Global de las Naciones Unidas y aquellas con prácticas controvertidas en materia de derechos humanos, corrupción o seguridad del consumidor.

Eskakizunak eta baldintzak ondo berrikustea eta betetzen direla ziurtatzea gomendatzen dugu.
Recomendamos revisar bien los requisitos y condiciones y asegurarse de que se cumplen.

Lehenesteko eta baztertzeko irizpideak
Criterios de priorización y exclusión

Bizkaiko Autonomoak Finantzatzeko Mikro lerroaren helburua proiektu bideragarri bat izan arren ekiteko edo jarduera sendotzeko oztopo handiagoak dituzten autonomoei kreditua eskuratzen laguntzea da.

Lehentasuna emango zaie emakumeek, pertsona migratuek, 50 urtetik gorakoek, desgaitasuna dutenek, landa inguruneetakoek edo kalteberatasun sozial edo ekonomikoko egoeran dauden beste kolektibo batzuek bultzatutako proiektuei, bereziki faktore horietatik bat baino gehiago ematen denean.

Finantzaketa-lerroak **finantza-inklusioaren helburua** betetzen duela bermatzeko, kanpoan geratuko dira fakturazio-mailarengatik, emaitzengatik, ondarearengatik, soldata-egiturarengatik edo finantzaketa tradizionalerako sarbidearengatik lerroaren helburuekin bateraezina den gaitasun ekonomiko finkatua erakusten duten proiektuak.

Zehatzago esanez, ez dira onartuko fakturazio handia eta errepikaria, enpresa finkatuetako langile-egitura propioak edo inbertsioa autofinantzatzeko behar adina baliabide propio dituzten proiektuak, ondoren zehazten diren mugak kontuan hartuta:

La línea de Financiación a Autónomos de Bizkaia Mikro tiene como objetivo facilitar el acceso al crédito a personas autónomas que, pese a contar con un proyecto viable, encuentran mayores barreras para consolidar su actividad.

Se dará **prioridad** a proyectos impulsados por mujeres, personas migradas, personas mayores de 50 años, personas con discapacidad, personas en entornos rurales u otros colectivos en situación de vulnerabilidad social o económica, especialmente cuando concurran varios de estos factores.

Con el fin de garantizar que la línea de financiación cumple su **objetivo de inclusión financiera**, quedarán excluidos aquellos proyectos que, por su nivel de facturación, resultados, patrimonio, estructura salarial o acceso a financiación tradicional, evidencien una capacidad económica consolidada incompatible con los objetivos de la línea.

En particular, se excluirán proyectos con facturación elevada y recurrente, estructuras de personal propias de empresas consolidadas o disponibilidad de recursos propios suficientes para autofinanciar la inversión, atendiendo a los límites que se detallan a continuación:

IRIZPIDEA CRITERIO	**AUKERAGARRI** ELEGIBLE	**BALORATZEKOA** A VALORAR	**BAZTERTUA** EXCLUIDO
Urteko fakturazioa Facturación anual	≦ 300.000 €	300.000 € – 400.000 €	> 400.000 € **ondoz ondoko 2 ekitalditan** durante 2 ejercicios consecutivos
Mozkin garbia* Beneficio neto*	≦ 40.000 €	40.000 € – 60.000 €	> 60.000 € **ondoz ondoko 2 ekitalditan** durante 2 ejercicios consecutivos
Lanekoak ez diren errendimenduak** Rendimientos no laborales**	≦ 5.000 €	5.000 € – 20.000 €	> 20.000 € **erabilgarri eta konprometitu gabeak** disponibles y no comprometidos
Plantillan dauden pertsonak Personas en plantilla	5 pertsona arte Hasta 5 personas	6 – 9 **pertsona** personas	10 **pertsona edo gehiago** o más personas

** Beneficio neto, entendido como RNAE (rendimiento neto de actividades económicas) y descontando el equivalente al SMI anual ampliado en un 20 % a efectos de cálculo: RNAE – 1,2*SMI*

*** Incluye rendimientos de capital mobiliario (ingresos por alquileres/arrendamientos), rendimientos de capital inmobiliario (dividendos y asimilados) y ganancias patrimoniales netas*

** Beneficio neto, entendido como RNAE (rendimiento neto de actividades económicas) y descontando el equivalente al SMI anual ampliado en un 20 % a efectos de cálculo: RNAE – 1,2*SMI*

*** Incluye rendimientos de capital mobiliario (ingresos por alquileres/arrendamientos), rendimientos de capital inmobiliario (dividendos y asimilados) y ganancias patrimoniales netas*

Online prozesua
Proceso online

ONLINE

01 *Hartu alta mikro-kredituak eskatzeko*
Darse de alta para solicitar microcrédito

A

www.bizkaiamikro.eus

ESKAERA

SOLICITUD

B

REGISTRO

ERREGISTROA

INICIAR SESIÓN

Mail_

••••••

E-mail bat eta klabe bat sartu.

Introducir un e-mail y una clave.

C

Erregistratu ondoren mezu elektroniko bat jasoko duzu, kontua baieztatzeko.

Una vez registrado, recibirás un e-mail para confirmar la cuenta.

D

Kontua posta elektronikoz berretsi ostean, eskaera has dezakezu.

Una vez confirmada la cuenta desde el e-mail, ya puedes comenzar la solicitud.

Prozesuan laguntzeko, **erabilera-gida** bat sortu dugu. Hemen kontsulta dezakezu:

Para ayudarte en el proceso hemos creado una **guía de uso.** Puedes consultarla aquí:

GUÍA DE USO

Eskaera bidaia bakarrean edo batean baino gehiagotan egin daiteke.

La solicitud se puede realizar en un solo viaje o en varios.

Online prozesua den arren, laguntza behar baduzu gurekin harremanetan jar zaitezke
Tel. 94 427 50 78

Pese a ser un proceso online, puedes ponerte en contacto con nosotros si necesitas ayuda:
Tfno. 94 427 50 78

ONLINE

02 *Eskabidea bete*
Cumplimentar la solicitud

E

ESKABIDEAREKIN JARRAITU
SEGUIR CON LA SOLICITUD

Edozein unetan gorde dezakezu eskaera eta beste egun batean sartu, harekin jarraitzeko.

En cualquier momento puedes guardar la solicitud y entrar otro día para seguir con ella.

Prozesu osoan zehar, aparteko laguntza emango dizuten informazio-botoi batzuk daude.

En todo el proceso hay unos botones de información que te proporcionarán ayuda extra.

1	Bete galderak dituen memoria.	Cumplimentar memoria con preguntas.
2	Adierazpen erantzulea.	Declaración responsable.
3	Entregatu beharreko Dokumentazioa igo. Gida honen amaieran, behar dituzun dokumentuen zerrenda bat eskaintzen dizugu..	Subir Documentación a entregar. Incluimos al final de esta guía el listado de documentos que necesitarás.

ALDAKETEK GORDE
GUARDAR CAMBIOS

Saioa amaitzean, beste une batean jarraitzeko, oso garrantzitsua da egindako aldaketak gordetzea.

Al finalizar la sesión para seguir en otro momento, es muy importante guardar los cambios realizados.

Online prozesua
Proceso online

ONLINE

03 *Eskaera amaitu eta bidali*
Finalizar y enviar la solicitud

F

Eskaera osorik bete ondoren, eskatutako dokumentazio guztia aurkeztuta eta konpromiso guztiak onartuta, aplikazioak "*Eskaera bidaltzea*" aukera aktibatuko du, zure online prozesua amaitutzat emateko.

Una vez completada totalmente la solicitud, aportando toda la documentación requerida y aceptando todos los compromisos, la aplicación activará la opción de "*Envío de solicitud*" con la que finalizar tu proceso online.

G



Eskaera bidaltzean, mezu bat jasoko duzu eskaera amaitu dela adierazteko, eskaera-zenbaki batekin (FE0001, FE0002, FE0003...).

Al enviar la solicitud, recibirás un mensaje indicando la finalización de la misma con un número de solicitud (FE0001, FE0002, FE0003...).

Online prozesua den arren, laguntza behar baduzu gurekin harremanetan jar zaitezke. Tel. 94 427 50 78

Pese a ser un proceso online, puedes ponerte en contacto con nosotros si necesitas ayuda. Tfno. 94 427 50 78

Online prozesua
Proceso online

ANÁLISIS INTERNO

04 *Eskaeren analisia eta ebazpena*
Análisis y resolución de las solicitudes

Eskaera bidali ondoren, proiektua aztertu egingo da. Beharrezkoa bada, Bizkaia Mikroko analisten taldea harremanetan jarriko da autonomoarekin, zalantzak argitzeko eta elkarrizketa pertsonala egiteko.

Una vez enviada la solicitud, se procederá a analizar el proyecto. Si es necesario, el equipo de analistas de Bizkaia Mikro se pondrá en contacto con la persona autónoma para solucionar dudas con la posibilidad de realizar una entrevista personal.

El análisis será presentado al Comité de Operaciones para su **valoración.**

Analisia Eragiketa Batzordeari aurkeztuko zaio, hark balora dezan..

Bizkaia Mikrok posta elektronikoz jakinaraziko du ebazpena baiezkoa ala ezezkoa den.

Bizkaia Mikro comunicará por email si la resolución es positiva o negativa.

PRESENCIAL

05 *Mailegua formalizatzea*
Formalización del préstamo

Onartutako eskaeren mailegua notariotzan sinatzea eta formalizatzea.

Firma y formalización en notaría del préstamo de las solicitudes aprobadas.



Behar den dokumentazioa
Documentación necesaria

1. **Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ):** Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ) egiaztatzen txartela.
2. Eskabidea egin duen **autonomoaren NANaren fotokopia**
3. Azken bi **ekitaldi osoetako eragiketa ekonomikoen liburua**
4. Azken bi **ekitaldietako Emaitzen Kontua**
5. Azken bi **urteetako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ)** aitorpenak, bai eta uneko ekitaldian aurkeztutakoak ere
6. **Azken bi urteetako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ)** aitorpenak, bai eta uneko ekitaldian erabilgarri daudenak ere
7. **Gizarte Segurantzari autonomoen** kuota ordaindu izana erakusten duten **bi ordainagiri berri**
8. **Zerga Agentziarekin eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza** Nagusiarekin ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak

1. **Número de Identificación Fiscal (NIF):** Tarjeta acreditativa del Número de Identificación Fiscal (NIF).
2. **Fotocopia de DNI** de la persona autónoma solicitante
3. **Libro de operaciones económicas** correspondiente a los dos últimos ejercicios completos
4. **Cuenta de Resultados** de los dos últimos ejercicios
5. **Declaraciones del Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA)** de los dos últimos años, así como las presentadas en el ejercicio en curso
6. **Declaraciones del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (IRPF)** de los dos últimos años, así como las disponibles del ejercicio en curso
7. **Dos recibos** recientes del pago de la **cuota de autónomos a la Seguridad Social**
8. **Certificados de estar al corriente de pago** con la **Agencia Tributaria** y con la **Tesorería General de la Seguridad Social**
9. **Certificado de titularidad de la cuenta corriente** en la que se desea formalizar la operación
10. **Presupuesto(s) detallado(s) de los bienes** a los que se desea destinar la financiación

Behar den dokumentazio guztia aldez aurretik aholkularitzarekin prestatzea gomendatzen dugu.
Recomendamos preparar con antelación toda la documentación necesaria con la asesoría.

Behar den dokumentazioa
Documentación necesaria

PDF Rellenable.

Bete daitezkeen PDFak deskargatu, inprimakiak bete eta gainerako dokumentazioarekin batera erantsi beharko dituzu.

Los PDF Rellenables deberás descargártelos, rellenar los formularios y adjuntarlos con el resto de la documentación.

9. **Eragiketa egin nahi den kontu korrontearen titulartasun-ziurtagiria.**
   PDF betegarria
   Deskargatu

10. **Finantzaketa bideratu nahi den ondasunen aurrekontu xehatua(k).**
    PDF betegarria
    Deskargatu

11. **Formulario de prevención de blanqueo de capitales.**
    PDF Rellenable.
    Descargar

12. **Declaración de bienes afectos al negocio.**
    PDF Rellenable.
    Descargar

11. **CIRBE**. Txostena

Aurrez aurre eska dezakezu Espainiako Bankuaren sukurtsal batean edo modu elektronikoan. Kasu horretan, ziurtagiri elektroniko bat beharko duzu, hala nola BAk, BAkQ, NANe edo beste bat.

CIRBEren eskaerarako esteka

11. Informe **CIRBE**.

Puedes pedirlo presencialmente en una sucursal del Banco de España o de forma electrónica. En este caso necesitarás un certificado electrónico como BAk, BAkQ, DNIe, u otro.

Link Solicitud CIRBE

Sede Electrónica BANCO DE ESPAÑA

Accede a la Sede Electrónica del Banco de España

Sartu Espainiako Bankuaren egoitza elektronikoan

@ CLAVE

Identifícate (con algún certificado electrónico válido).

Identifika zaitez (baliozko ziurtagiri elektronikoren batekin)

Si proporcionaste una dirección de e-mail te notificarán que ya está disponible para descarga.

E-mail helbide bat eman bazenuen, deskargatzeko eskuragarri dagoela jakinaraziko dizute

Descargue el informe CIRBE y adjúntelo a la solicitud.

Deskargatu CIRBE txostena eta erantsi eskaerari.

Osagarri gisa, enpresak beharrezkotzat jotzen duen beste dokumentazio mota bat aurkeztu ahal izango du, hala nola negozio-planak, aurreikuspenak, eskaera-zorroa, aurrekontuak, merkataritza-dokumentazioa, eskainitako produktuen eta zerbitzuen dokumentazio grafikoa, enpresaren organigrama, prentsako eta Interneteko albisteak, etab.

De manera complementaria, la persona podrá aportar otro tipo de documentación que estime necesaria, como planes de negocio, previsiones, cartera de pedidos, presupuestos, documentación comercial, documentación gráfica de los productos y servicios ofertados, noticias en prensa y en internet, etc.

Bizkaia mikro | autonomoak

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:
PARA MÁS INFORMACIÓN:

T.: 944 275 078
Plaza Sagrado Corazón, 5-7º
48011 Bilbao - Bizkaia
bizkaiamikro@bizkaia.eus

bizkaiamikro.eus

Mikro

#BelieveInSmall

With the support of the European Investment Fund under the InvestEU Fund

Bizkaia
enplegua, gizarte kohesioa eta berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo, cohesión social e igualdad